

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak goi-kargudunen soldaten murrizketa eta soldata horiek Aurrekontuen Legean osorik eta gardentasunez argitaratzea onetsi ditu

Lehendakariarentzat batez besteko murrizketa % 43koa da eta kontseilariarentzat % 26koa

Lunes, 07 de noviembre de 2011

Nafarroako Gobernuak 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua onetsi du gaur ezohiko bileran. Proiektu horrek lehen aldiz jasotzen ditu [goi-kargudun guztien ordainsari guztiak](#). Ordainsari horiek orain arte jasotakoak baino nabarmen txikiagoak izango dira, izan ere, batez beste, Lehendakariaren kasuan % 43koa izango da murrizketa eta



Miranda presidenteordeak Aurrekontuen Proiektua eman dio Nafarroako Parlamentuko presidenteari

kontseilarien kasuan % 26koa. Aurrekontuen Proiektua gaur aurkeztuko da Foru Parlamentuan haren inguruan eztabaidatu eta onetsi dezaten. Proiektuari esker, Nafarroa Gobernuak goi-kargudunek jasotzen duten soldata berriaz eta gardentasunez argitaratzen duen lehen autonomia erkidegoa da. Goi-kargudunak Gobernuak kideak, zuzendari nagusiak eta erakunde autonomoetako kideak, gabineteko buruak eta sozietate publikoetako kudeatzaileak dira.

Ordainsarien sistema berria Juan Luis Sánchez de Muniáin kontseilari eta Gobernuaren eledunak aurkeztu du prentsaurrekoan. Sistema horrek Nafarroako Gobernuak "egoera ekonomikok eskatzen duen mailan jokatzeko duen asmoa betetzen du. Esan duenez, Gobernuak Nafarroako gizartea egiten ari den ahalegina egin nahi du egoera ekonomikoari aurre egiteko, ordainsarien sistema "gardena eta neurritzkoa ezarriz. Nafarroako gizartearen bi aldarrikapen horiek bere egin ditu Gobernuak.

Soldata osoa Aurrekontuan

Soldaten taula berriak oinarritzko bi printzipio batzen ditu: orain arte Aurrekontuen Legean ezarrita zegoen soldata bertan behera uztea eta Gobernuak goi-kargudun guztiek erakunde publiko edo pribatuen dietak jasotzeko uko egitea. Hartara, Gobernuak kide guztiek Aurrekontuetako soldata bakarrik jasoko dute, eta aurreko egoerarekin alderatuta nabarmen

murriztuko da.

Dietak kobratu ordez, Gobernuak kideek urteko zenbatekoa jasoko dute kide anitzeko organoen kudeaketagatik. Organo horietako kide dira Gobernuaren ordezkari gisa. Ardura gehigarrien osagarria da, eta karguaren arabera izango da.

Hortaz, Lehendakariaren soldata 92.712,61 euro izango da. Horren % 75 oinarritzko soldata izango da eta gainerako % 25 osagarria. Presidenteordeek 80.679,03 euro jasoko dituzte, % 80 oinarritzko soldata eta % 20 osagarria. Kontselariek, bestalde, 75.933,20 euroko ordainsaria jasoko dute. Kopuru horretatik % 85 oinarritzko soldata izango da eta % 15 osagarria. Oinarritzko soldatak bertan behera utzita dituzten zuzendari nagusien, zuzendari kudeatzaileen, organismo autonomoetako zuzendarien edo kabineteko kideen kasuan, osagarria % 15ekoa izan ahalko da Nafarroako Gobernuak kargu bakoitzerako ezartzen duenaren arabera. Baliteke ez aplikatzea osagarririk.

Kalkulatutako datuen arabera, Lehendakariaren, presidenteordeen eta kontseilarien osagarri guztiak batuta, diru-kutxek aurreko egoerarekin alderatuta % 43 gutxiago izango dute, hau da, 96.000 euroko murrizketa.

Ordainsarien taula berri horrekin, Gobernuak Gobernuak kide guztien soldaten homologazioa ere esleitu du kargen arabera. Esan bezala, alderatze hori beharrez egin da. Hortaz, Gobernuak kontseilari guztiek ordainsari bera jasoko dute eta ordainsaria aurreko Gobernuan soldatarik baxuena zeukan kontseilariarena baino baxuagoa izango da.

Gardentasuna

Goi-kargudunen ordainsariak murrizteko, Nafarroako Gobernuak oinarri hartu ditu beste autonomietako gobernuen ordainsariei buruzko azterlanak. Horiek adierazle teknikoak kontuan hartuta egin dira, esate baterako, autonomia erkidego bakoitzeko BPG, per capita errenta, erkidegoaren aurrekontua, langile publikoen kopurua, etab.

Azterlan horiek oinarri, Nafarroa Gobernuak eta goi-kargudunek jasoko dituzten diru-sarrera guztiak aurrekontuetan jasotzen dituen estatuko laugarren erkidegoa izango da. Euskal Autonomia Erkidegoak, Kantabriak eta Kanariak bakarrik arautu izan dituzte orain arte politikarien soldatak. Nafarroaren kasuan, gainera, enpresen sektore publikoko datuak jaso dira, hiru autonomia erkidego horietako batek ere egiten ez duena. Beraz, goi-kargudunen (sozietate publikoetako zuzendariak barne) soldata guztiak kaleratuko dituen erkidego bakarra izango da.

Gastu publikoaren zorrotasuna

Nafarroako Gobernuak goi-kargudunen soldata murriztea legegintzaldiaren hasieratik onetsi ziren zorrotasun neurriei batu zaie. Gobernu berriak [% 24 murriztu zuen goi-kargudunen kopurua](#) eta [% 8 Administrazioaren egitura](#). Horrez gain, [sozietate publikoen berregituratze prozesua amaitu zuen](#) (sozietateak 38tik13ra murriztu ziren, % 66 gutxiago) eta [horien kudeatzaileen soldatak murriztu zituen](#).

Gastu publikoaren zorrotasunaren ildo horretatik, Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektuan 3.837,7 milioi euroko zenbateko osoa aurreikusi da. Horietatik 3.711 milioi euro gastu ez finantzarioa dira, hau da, departamentuek gauzatu ahal izango dutena. Azken zenbateko hori % 2,95 jaitsi da 2011ko ekitaldiko gastuaren mugari dagokionez.

Gobernuak onetsi ondoren, Álvaro Miranda Simavilla bigarren presidenteorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria Nafarroako Parlamentuaren egoitzara joan da proiektua Alberto Catalán bertako presidenteari emateko.

Nafarroako Gobernuak egin duen Aurrekontuen Proiektuak hauek betetzen ditu: eskualdeko BPGren % 1,3ko defizitaren helburua betetzea, gastu publikoari eustea (% 2,95 gutxiago), osasun, gizarte gai eta hezkuntzako zerbitzu publikoak mantentzea (hiru departamentuen artean aurrekontu osoaren % 51,28 hartzen dute. 2011an % 51,61 hartu dute), eta ekonomia eta enplegua suspertzearen aldeko apustua egitea, inbertsioei eutsiz, baina arreta jarriz egoera ekonomiko ezeqonkorragatik.